

Arratsalde batean bilduak

D.Y. 3/11/1978

TXOMIN GARMENDIA

URRIAREN 22'ko arratsaldea zan, eginkizun geiegirik gabe Donosti'n gertatu nintzalarik, ez nun denborik alperrik galdu, eta emen dijoazkizu irakurle, bildu nitun pitxiak.

Akuariun sonatu ori, berri edo aunditu zutenetik ikusi gabe nengon eta bete nun kutixi ori ere. Arrigarrizko langintzak eta edertasunak ikusi litezke bertan, eta begiak gozatu litezke ederki. Itsasoa gauza aberatsa izango da benetan; esan zidatenez, tiburoi asarre oiek ere, aurki etortzekotan dira eta orduan ere izango da ikus-miña. Azken batean auxe esan bear: badabillela dirua gure erri onetan!

Akuariun'etik erten nintzanean, Paseo Berrian ari dituzten langintzak eta abar ikusten ibilli nintzan. Txirrindularientzat ere jarriko dute bide-gorri bat eta kirol ori maiten dutenak ez dira izango asarre. Badira ordea asarre dabilizan norbaitzuk ere, itxurak diranez: bide-gorri orren eta oiñezkoan ibilbidean erdian, illaran, altuegi ez diran zunttoi batzuk jarri dituzte goian parolarekin eta geienak, danak ez bada ere, puskatu dituzte. Moiuaren bi langilleak esan zidaetenez, gau batean egindako azioa da eta ez nolanaikoa. Parol oiek, naiko kristal sendoa omen zuten, baiña bigundu dituzte ederki gau-txori gaiz-

kille oiek. Baiña nora goaz? Ez gera asko konturatzen geure etxeko tellatura ari gerala arrika; ez Donosti'ko Udaletxekona bakarrik.

Urriaren 22'an, eguneroko ontan, beste batzuren artean, Iñaki Linazasoro adiskidearen erantzun bat zetorren; Lendakari berriari zer eskatuko lioken galderaren erantzuna ain zuzen. Berak zionez, partiduak milla gauz

Sagardotegiko nagusiak esan zigun Txekoslovakitik ekarri dula sagarra

agindu dizkigute, baiña iñori ez dio entzun edukazioaz bustiko diranik. Batez ere, gaztediaren errespetoa eta edukazioa zitun gogotan tolosar adiskideak; ori gabe ez omen da bizibide ederra izango gure artean. zerbait esan dula esango nuke. Paseo Berriko eta beste ainbat azio lekuko.

Arrantzale batzuekin itzegiteko zoria ere izan nun kaian; berak ziotenez, atunketari amaia eman zioten, oraindik ontzi batzuk badabilizan arren, eta naiko etekin onare-

kin. Ez da gutxi. Orain gauero, txitxarrotara eta orrela ertetzen ziralazioten. Ekarri deztela zerbait eta izan bezate bizi-poza.

Nere ibilliak, adiskide zaar batena bilduaz, sagardotegi batean izan zun amaiera; iritxi giñanean, nagusi jaunaren galdera egin gendun ain ezaguna dedanez; Txekoslovakia'tik etorri zala trailerka sagarra eta ura ustutzen zala esan ziguten. Emen ez omen da sagar geiegi, eta Asturias'en ere ez, eta al dan lekutik ekarri bear. Paraje artatik datorren sagarra ere, ez da izango musu-truk. Emengo ontzi guztiak ez ote diran beteko ere, entzunda gaude. Ezaugarri txarrak mama merke izateko.

Ez gendun iñoiz entzun, emengo sagardogilleak Txekoslovakia'tik sagarrak ekarri zutenik; baiña mundua txiki biurtu zaigun ontan, ez da izango zertan arriturik. Oso sagar ona etorri zala gaiñera esan zigun sagardogilleak.

Alemanira saltzen omen dute sagar asko txeko oiek. Gure inguruan apaldu zun dalako txoperrak eta Balentzi'ra zijoala mandarinak kargatzea omen zion. Gaurko aurrerapen bidez, diruz osatu ezkerro beintzat, andik edo emendik gauzik osatu eziñik ez da izango. Denboraz jakingo degu Txekoslovakiko sagar orren sagardoa ere nolakoa dan.